

Pilotu-izurdeak.

Tenerifeko hegoaldeko harkaitz bolkanikoetatik, La Gomera bustitzen duten urak ikus daitezke.

Bi uharteen artean dagoen eta lurraren erraietaraino sartzen den sakongunean, urpeko bizi forma guztiak aurki ditzakegu: arrainak, oskoldunak, ekinodermoak, narrastiak, moluskuak... eta guztiak dute fito- eta zooplanktona oinarri trofiko. Bizitzak berak azaltzen ditu naturaren mirariak ondoen.

Hemen, 500 bat aleko pilotu-izurde hegaluzearen komunitate bat bizi da. Zetazeo hau buruan daukan *meioi* izeneko organo gantzatsuagatik da bereizgarria.

Sakongune honetako txipiroi ugaritasunak pilotu-izurdearen presentzia etengabea bultzatzen du, ez baitu janari bila urrun joateko beharrik.

Ar helduak bost metro eta erdirainoko luzerara iritsi ohi dira, eta hiru tonako pisua har dezakete; emeak, arras txikiagoak eurak, horren erdira baino ez dira iristen.

Tenerifeko hegoaldean, izurdeekin lotutako jarduera turistikoa garatu da. Hala ere, behaketa urazalean egin behar da, eta zarata eta gertutasun arauak bete behar dituzten pertsona eta ontzi baimenduekin.

Beste odontozetoak bezala, pilotu-izurdea ez da animalia izua.

Canarias uharteetan, *roaz* deitzen dute espezie hau. Bizkar-hegats beltz kaketu eta urazalean ibiltzeko bere moduagatik beste zetazeo hurbiletatik erraz bereiz daiteke.

Ontziari salto irribarretsua eskainiz hurbiltzen zaizkiola esango genuke, baina arriskuren batez ohartuz gero, oso bizkor ihes egiteko gai dira.

Ar dominante batek gidatzen du 15 edo 20 alez osatutako taldea.

Beste zetazeo askok bezala, jarrera kooperatiboa erakusten dute.

Zenbait arrantzale zahar, bizitza oso bat animaliak harrapatzeari eskaini eta gero, orain euren gana errespetuz hurbildu eta euren itsasoari buruzko jakintza sakona irakastetik bizi dira.

Animaliek ez diete inoiz huts egiten bisitariei; baina aldi berean eurek ikuspuntu bera duten ez dago argi.

Baina, ezin dugu zalantzan jarri bi espezieetatik zein den uretan hobeto moldatzen dena.

Pilotu-izurdeek itsasoan dantzatzen jarraitzen dute, goitik behera, behetik gora, pisugabeak, dotoreak, mugimendu zehatz bezain leunak.

Tenerife eta La Gomera artean, habitat ezin egokiagoa aurkitu duten ubide honetan, dantzan dihardute, behatu ohi dituzten neoprenoz jantzitako animalia bitxiak ere bertan egon arren.